BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

965

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 24koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinetan onartu egiten baita Garabide Elkartea erakundeari emandako laguntza bati, zehazki, beherago zehaztu proiektua garatzeko emandako laguntzari uko egiteko eskabidea. Delako proeiktua: 2010. urtean zehar, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko aldaketak sustatzeko, lankidetza-entitateak laguntzeko deialdiaren barruko «Diagnóstico participativo de género y Plan de acción estratégico pro-equidad» Proiektua.

2010eko abenduaren 30ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, Garabide Elkartea entitateari 16.632 euroko diru-laguntza eman zitzaion, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko prozesuak sustatzeko (GBA-2010BA/0009).

2013ko urtarrilaren 15ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari bidalitako komunikazioaren bidez, aipatu entitateak eskabide bat aurkeztu zuen, non eman zitzaion diru-laguntzari uko egitea formulatzen baitzuen, hain justu ere espedientean jasotako zioak direla-eta.

Eskabide hori aztertu da, eta entitate onuradunak formulatutako uko egitearen aldeko kontsiderazioa egiten da.

Azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuak, hau da, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko aldaketak sustatzeko, lankidetza-entitateentzako laguntzak arautzen dituenak, bere 23. artikuluan ezartzen duenez, diru-laguntza jasotzen duen entitateak berehala jakinarazi beharko dizkio Garapen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari Proiektua gauzatzean egin nahi diren aldaketak. Hortaz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio baldintzak aldatzeko ebazpena ematea; egoki bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregokitu egin dira; hartarako, diru-laguntza emateko ezarritako mugak aplikatuko dira; eta onuradun entitateek, erakundeek eta pertsonek itzuli egin beharko dituzte neurriz kanpo jasotako zenbatekoak.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren, eskumen hori, eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari dagozkio.(ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena).

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– 2010. urtean zehar, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko aldaketak sustatzeko, lankidetza-entitateak laguntzeko deialdiaren barruko proiektua gauzatzeko, Garabide Elkartea entitateari emandako diru-laguntzari uko egitea onartzea.

Horren ondorioz, justifikatu ez duen diru-zenbatekoa itzuli beharko du entitateak, zeina 9.979.20 eurokoa baita. Halaber, bigarren ordainketa (6.652,80 euro) egiteko agindua baliogabe uzten da.

2.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 24a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.